

# Euskara Proba

## Irakurriaren ulermena

### DBH 2

Lehen zatia

---

151

2005



**a d i b i d e a k****Dragoiak maite zituen jauna**

Ye jaunak biziki maite zituen dragoiak; gela guztietan zeuzkan eskulturetan edo pintaturik. Zeruko benetako dragoia enteratu zenean, lurrera jaitsi eta burua sartu zuen Ye jaunaren etxeko atetik eta buztana leiho batetik. Ye jaunak dragoia ikustean, erabat izuturik alde egin zuen eta ia-ia zoraturik bukatu zuen.

Izan ere, Ye jaunak ez zituen hainbeste maite dragoiak. Dragoi itxurakoa zuen gogoko, baina inola ere ez dragoia bera.

*Txinako ipuin bat*

**1. Zer zuen gela guztietan Ye jaunak?**

- A) Zerutik jaitsitako dragoiak
- B) Benetako dragoiak
- C) Dragoiak eskulturetan edo pintaturik
- D) Txinako dragoiak

**2. Zein da testuaren mamia?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

153

**j a r r a i b i d e a k**

- \* Orain irakurri eta erantzungo dituzu horrelako galdera gehiago.
- \* Ez idatzi ezer koadernotxo honetan.
- \* Erantzun orrian marka ezazu erantzun zuzenari dagokion hizkia.
- \* Galdera irekietan, erantzun ahalik eta hobekien idazteko eman zaizun orrian.
- \* Egin lana ahalik eta lasterren.
- \* Saia zaitetz galdera guztiei erantzuten.
- \* Orrialde bakoitza bukatutakoan, hurrengora pasa koadernotxoa amaitu arte.
- \* Okertzen bazara, erantzun hori ezaba dezakezu eta zure ustez zuzena den erantzuna marka dezakezu.

**EZ ZAITEZ HURRENGO ORRIALDERA PASA PROBA AZALTZEN ARI ZAIZUN PERTSONAK HORRETARAKO BAIMENA EMAN ARTE ETA BETE ITZAZU BERE AGINDUAK.**

Badiarekin emandako egun haiek, azken egun haiek, Marrakexeko zoriontsu-  
netakoak gertatu zitzaizkidan. Gezurra bazirudien ere, bere auzunea salbu, Badiak  
ez zuen hiria ezagutzen, eta ni bere gidari partikularra bilakatu nintzen. Gainera,  
turistekin ez bezala, neba-arrebak ginela irudi zuenez, ondo-ondoan joaten nin-  
tzaion Hiri Gorriaren zokomokoak oro ezagutarazten. Amaitutakoan, plazako ka-  
fetegi bateko terrazan te bat hartzera gonbidatu eta ondoren medina inguratzen  
duten harresietara eramaten nuen. Eta ilunabar batez, harresi haietantxe utzi zi-  
dan ene lehendabiziko musua pausatzen, eta ilunabar hartan kontatu nion, Esaui-  
ratik itzulian, Kamili entzundako ipuina.

– “Behin batez, Fez hiriko kanpoaldean, ba omen zen neskaxa bat, lerdena  
gorputzez eta biguina hitzez, gameluzain xume batekin maiteminduta zegoena.

Bien arteko amodioa zero oskarbiko eguzkia bezalakoxea zen: beroa, biribila,  
argia... Harik eta hodei konkor ilunek zeruko argizagia ezkutatu zuten arte; antza,  
handik eta hemendik, kalifak neskaren berri izan eta jauregira eramateko agindu  
zuen.

Neska beldurturik eta gurasoak bozkarioz beterik, kalifaren aurrera agertu zi-  
ren. Orduan kalifak bertatik bertara ikusi eta ahal izan zuen neska hartaz entzun-  
dakoak motz geratzen zirela eta nekez aurki zitekeela haren dohainak aditzera  
emateko moduko hitzik.

Baina neskaxak gameluzain hura gogoan, eta kalifarekin ezkondu nahi ez.

Kalifa hamaika trikimailuz baliatu zen neskaren bihotza erakartzeko, halakoak  
eta honelakoak agindu zizkion, baina alferrik. Etsi ez, ostera, eta onez lortzerik  
izan ez zuena, gaiztoz eskuratzea erabaki zuen: ‘Zorro honetan bi masusta sartuko  
ditut, gorria bata, beltza bestea’, esan zion kalifak, ‘gorria ateratzen baldin badu-  
zu, gameluzain petral horrekin joango zara, baina beltza ateraz gero, nirekin espo-  
satuko zara’.

Neskatxa atsekabez beterik negarretan urtzen zen bitartean, azpikeriaz, kalifak  
bi masusta beltz sartu zituen zorroan. ‘Ea, atera ezazu bat’, agindu zion irribarre  
maltzurrez. Eta neskak, Alak bere gogoa argiturik, agudo baino agudoago masus-  
ta bat atera eta braust!, ahora eramane zuen.

Orduan kalifak eskuak burura eramane eta ‘Neska mentse, zer egin duzu kuialili  
ero hori?’, galdetu zion. ‘Ez ziren jateko. Zer egingo dugu orain?’ Baina argia izan  
eta neskatoak berehalaxe eman zion arrapostua: ‘Ez dago zertan kezkatutik. Zuk  
zeuk esan duzu bi masusta sartu dituzula, gorria bata eta beltza bestea; beraz, zo-  
rroan zein geratu den begiratzea besterik ez duzu...’

Eta jakina, zorroan beltza zegoenez, denek pentsatu zuten neskak gorria atera  
zuela; denek, kalifak izan ezik...”.

Alabaina, Mahjubik irakatsia zidan bezala, eguneroko bizimoduan kalifa haren  
gisakoak garaile irteten ziren; eta ipuinetan ez bezala, eguneroko bizitza latza eta  
gordina zen.

**Patxi Zubizarreta**, *Eztia eta ospina*.

**1. Narratzaileak Hiri Gorria aipatzen duenean, zein hiriz ari da?**

- A) Badia
- B) Rabat
- C) Marrakex
- D) Fez

**2. Badia eta narratzailea...**

- A) Elkarrekin dabilta
- B) Mahjubiken irakasleak dira
- C) Esauraren lagunak dira
- D) Anai-arrebak dira

**3. Zer esan nahi du "Harik eta hodei konkor ilunek zeruko argizagia ezkutatu zuten arte"?**

- A) Ekaitza hasi arte
- B) Hodeiek eguzkia ezkutatu arte
- C) Euria hasi arte
- D) Gauzak okertzen hasi arte

**4. Zein da neskaxaren eta kalifaren kontakizunaren narratzailea?**

- A) Patxi Zubizarreta
- B) Fez
- C) Badiarekin dagoen mutikoa
- D) Mahjubi

**5. Narrazio honek bi istorio txertatzen ditu?**

- A) Bai, ipuin bat istorio baten barruan
- B) Ez, istorio bakarra kontaktzen du
- C) Bai, bata neskaxarena eta gameluzainarena eta bestea kalifarena
- D) Ez, hemen ez dago istoriorik

**6. Zein izango litzateke "zoko-mokoak" hitzaren sinonimoa?**

- A) Muturrak
- B) Mukiak
- C) Mozorroak
- D) Bazterrak

**7. Zer esan nahi du "lerdena gorputzez eta biguina hitzez"?**

- A) Ederra itxuraz eta goxoa hitz egiten
- B) Itsusia itxuraz eta isila
- C) Liraina itxuraz eta lotsagabea hitz egitean
- D) Desatsegina itxuraz eta goxoa hitz egitean

**8. Testua...**

- A) Lehen pertsonan kontatzen da
- B) Hirugarren pertsonan kontatzen da
- C) Istorio bat lehen pertsonan eta bestea hirugarren pertsonan
- D) Zati bat bigarren pertsonan eta beste guztia hirugarren pertsonan

**9. Kalifak neskatxaren bihotza bereganatzeko eta berarekin ezkontzeko...**

- A) Gauza garestiak oparitu zizkion
- B) Bere gazteluan bizitzera eraman zuen
- C) Bahitu egin zuen
- D) Apustu bat proposatu zion

**10. Zergatik sartu zuen neskatxak masusta ahoan?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

**11. Zein izango litzateke neskatxaren eta kalifaren ipuinaren moraleja edo ondorioa?**

- A) Benetako maitasunak oztopo guztiak gainditzen ditu
- B) Jende xumea maitemintzen da
- C) Ipuin guztietan kalifak beti garaile irteten dira
- D) Apustuak egitea arriskutsua da

Ehun bat metrora geundenean azkenik ikusi nituen etxolak. Sakonune batean zeuden eta apenas altxatzen ziren sasiak gainetik. Beti uste izan nuen indioak, mexikarrak bezala, lurrezko etxeetan bizi zirela, baina larrez edo arbastaz egindako kono formako etxola batzuk baino ez ziren aurrean neuzkan etxeak, gainetik abere larruak eta jantzi puskek zeuzkatela. Bazeuden haien artean uniforme urdinak, oraindik odola zeukatenak. Etxola batzuetatik ke-adar arin, kasik ikustezinezkoak altxatzen ziren.

**Thomas Jeier, *Apatxe Zuria***

**12. Zer deskribatzen da testuan?**

- A) New Mexikoko herrixka bat
- B) Mexikoko herrixka bat
- C) Indioen herrixka bat
- D) Soldaduen kanpamendu bat

**13. Zer uste zuen betidanik narratzaileak?**

- A) Indioak kono formako etxola batzuetan bizi zirela
- B) Indioak lurrezko etxeetan bizi zirela, mexikarrak bezala
- C) Mexikarrak, indioak ez bezala, lurrezko etxeetan bizi zirela
- D) Indioak lurrezko etxoetan bizi zirela, mexikarrak bezala

157

**14. "Bazeuden haien artean uniforme urdinak" esaldian, "haien artean" hori zeri dagokio?**

- A) Indioei
- B) Etxolei
- C) Jantzi puskei
- D) Etxeei

**15. Deskribatzerakoan aditzak agertzen dira:**

- A) Hirugarren pertsonan eta lehenaldian
- B) Lehen pertsonan eta orainaldian
- C) Hirugarren pertsonan eta orainaldian
- D) Lehen pertsonan eta lehenaldian

**16. Uniforme urdin puska batzuek odola zeukaten. Zergatik uste duzu?**

**ERANTZUN IDAZTEKO EMAN ZAIZUN ORRIAN**

## 10 Gogoeta energia aurrezteko

1. Etxean erabiltzen den energiak kostu handia du, bai diruari bai ekologiari begira.
2. Eguzkia dohainik da berotu, argitu, idortu, eta abarretarako.
3. Itzali argia eta tresnak, erabiltzen ez badituzu.
4. Kontrolatu ur beroa dutxan, ontziak garbitzeko makinan eta arropa garbigailuan, eta horiek ongi beteta erabili.
5. Ez utzi beroari leihotik ihes egiten. Berogailua tentuz erabili.
6. Etxea isolatu (panelak, kristal bikoitzak, pertsiana-kaxa zigilatuak).
7. Oinez ibili, txirrindu gainean edo garraio publikoan.
8. Ibilgailua puntuan eduki eta bat-bateko azeleraziorik gabe gidatu.
9. Ahal dela, bertako produktuak kontsumitu, zorro soiletan bilduta daudenak; boltsak berriro erabili eta hondakinak birziklatu.
10. Bizi-kalitateak ez du ukatzen energiaren aurrezkoa. Energia aurreztea etorkizunaren alde aritzea da.

### 17. Testu honetan agintera izaera dute

- A) 1-9 puntuek
- B) Guztiak
- C) 3-9 puntuek
- D) 2-8 puntuek

### 18. Testu honen ondorio da:

- A) Energia aurrezteak bizi kalitatea jaisten du
- B) Argia aurrezteak geroaz pentsatzea dakar
- C) Etxean erabiltzen den energiak ez du kostu handirik
- D) Energia aurrezteak zuhurkeria islatzen du

### 19. Zer esan nahi du "berogailua tentuz erabili" esaldiak?

- A) Berogailua beharrezkoa denean soilik erabiltzeko
- B) Berogailua sarri gainbegiratzeko
- C) Berogailua ez pizteko eta eguzkiaz baliatzeko
- D) Berogailua dutxarakoan soilik erabiltzeko

### 20. Nori zuzendutako testua da hau?

- A) Biztanle orori
- B) Etxekoandreei
- C) Ikasleei
- D) Herritarrei soilik

### 21. Zer esan nahi du "idortu" hitzak?

- A) Agortu
- B) Makurtu
- C) Hezetu
- D) Lehortu